

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAGRANGO UDALA

#### Borondatezko epean kobratzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2023ko zerga

Udal honetako alkatearen aginduz, honako hau jakinarazten da:

2023ko otsailaren 1etik martxoaren 31ra arteko egun balioudunetan (biak barne) trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2023ko zergari dagozkion ordainagiriak kobratzeko moduan egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ez badute ordainketa banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako izapiderik egin behar, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berean helbideratuta badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen Zergabilketako Arautegi Orokorren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Lagrán, 2023ko urtarrilaren 19a

*Alkate-lehendakaria*

**JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ**